Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko abuztuaren 10a, ostirala — 154 — Viernes, a 10 de agosto de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## IRUNGO UDALA

### Hirigintza eta Garapen Iraunkorreko Arloa

2018ko uztailaren 26an, 1447 zenbakiko ebazpena eman zuen alkate-lehendakariak:

«1. 63.01. Alarde eremuko urbanizazio proiektua hasiera batean onartzea, ondoko baldintzaren pean eta ebazpen honen eranskineko baldintzen pean.

Urbanizazio proiektua behin betiko onartu aurretik, hirigintzako jarduketa programa behin betiko onartu beharko da.

2. Espedientea jendaurrean jartzea, hogei egunez, iragarkiak argitaratuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Lurralde Historikoko zabalkunderik handieneko egunkarietako batean».

Eta hau argitaratzen da, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Irun, 2018ko uztailaren 27a.—Alkatea, eskuordetuta, M.ª Teresa Fernandez, Hirigintza eta Garapen Iraunkorrako Administrazio Unitateko burua. (5575)

ERANSKINA

*1. Antolamendua.*

— Hiri hondakinak biltzeko edukiontziak jartzeko tokiak planteatu behar dira, beharrezkoak baitira urbanizazio berrirako.

— Urbanizazioaren barruan aurreikusten diren garajeetako sarrerei dagokienez, espaloia bidegorritik eta galtzadatik gora mantentzeko aukera aztertu behar da. Horretarako, bidegorriak eta espaloiak bat egiten duten lehenengo 50 zentimetroak beheratu beharko lirateke.

— 5. zenbakiko ezkaratzaren atzealdeko saltegirako sarrerak bertako espaloiaren maila berean gelditu behar du gutxi gorabehera, eta malda txiki bat izan behar da espaloitik galtzadarantz, euri urak ez daitezen isur eraikinaren fatxadarantz.

— 5. zenbakiko ezkaratzaren atzealdeko saltegia mugatzen duen lorategiari dagokionez, maldak ez du eraikinaren fatxadaranzkoa izan behar, espaloiranzkoa baizik. Gainera, komeni da ezponda formako lorategi bat sortzea bertan, erdisotoko hormek eragin txikiagoa izan dezaten bistan, agerian geratzen baitira Alarde kaleko espaloitik begiratuz gero.

— Ez da egokia ibilgailuak 5. zenbakiko ezkaratzaren atzealdeko saltegian sartzeko pasabide bat sortzea.

— Oinezkoentzako pasabideen parean, bidegorria eten behar da, eta oinezkoentzako pasabideei jarraipena eta lehentasuna eman. Gainera, bertan, txirrindularien abiadura 5 km/hra mugatzeko seinaleak jarri behar dira bidegorrian.

— Alarde kalearen hasiera zeharkatzen duen oinezkoentzako pasabideak Eusebio Pedrós Alardeko Jenerala kaletik jaisten diren oinezkoen bidearen aurrez aurre gelditu behar du.

## AYUNTAMIENTO DE IRUN

### Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible

Con fecha 26 de julio de 2018 por la Alcaldía-Presidencia, se ha dictado la siguiente Resolución n.º 1447:

«1.º Aprobar inicialmente el Proyecto de Urbanización del ámbito 63.01 Alarde con sujeción a la siguiente condición y a las condiciones que figuran en anexo adjunto a la presente Resolución.

De forma previa a la aprobación definitiva del Proyecto de Urbanización deberá estar aprobado definitivamente Programa de Actuación Urbanizadora.

2.º Someter el expediente a información pública durante el plazo de veinte días, mediante publicación de anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico.»

Lo que se publica en cumplimiento lo dispuesto en el artículo 196 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Irun, a 27 de julio de 2018.—El alcalde, p.d., la jefa de la Unidad Admva. de Urbanismo y Desarrollo Sostenible, M.ª Teresa Fernandez. (5575)

ANEXO

*1. Ordenación.*

— Se deben plantear los espacios para la ubicación de los contenedores de residuos urbanos que resultan necesarios para la nueva urbanización.

— En los accesos a garajes previstos en la urbanización, se debe estudiar la posibilidad de mantener la acera elevada respecto del bidegorri y la calzada, realizando el rebaje de acceso en los primeros 50 cm del encuentro entre el bidegorri y la acera.

— El acceso al local comercial situado en la trasera del portal número 5 debe quedar aproximadamente a la cota de la acera en ese punto. Desde el acceso, la acera debe tener ligera pendiente hacia la calzada para que las aguas de lluvia no discurran hacia la fachada del edificio.

— Del mismo modo el jardín que limita con el local comercial mencionado, en la trasera portal número 5, debe tener pendiente hacia la acera y no hacia la fachada del edificio. Siendo conveniente además ejecutar en ese lugar un jardín en talud para rebajar el impacto visual de los muros de semisótano que quedan vistos desde la acera de la calle Alarde.

— No procede la ejecución de vado para acceso de vehículos al local comercial situado en la trasera del portal número 5, debe eliminarse.

— A la altura de los pasos peatonales se debe interrumpir el bidegorri dando continuidad y prioridad al vado peatonal. Además en esos puntos se debe colocar en el bidegorri señalización de limitación de velocidad para los ciclistas de 5 km/h.

— El paso peatonal que cruza la calle alarde al inicio de la calle, debe quedar enfrentado con el itinerario de los peatones que bajan desde la calle Eusebio Pedros Alardeko Generala.

EK\CV GAO-I-2018-05575

— Proiektatutako bide sareko luzetarako profilei dagokienez, akordio bertikalak zehaztu behar dira.

*2. Zoladura.*

— Oinezkoentzako pasabideen beheraguneetan, zintarriak eta arekak maila berean gelditu behar dute, eta ezin da izan inolako desnibelik, ezta zintarriaren goiko aldeko alaka edo biribilgunearena ere.

— Oinezkoentzako pasabideak seinalatzeko zerrenda pasabideen luzetara jarri behar da.

*3. Zerbitzuak.*

— Proiektatutako argi sare berriaren barruan, Euskal Herria hiribidearen eta Alarde kalearen arteko kale tarteko galtzadaren alde bietako argiak berritu behar dira, sare berrira konektatutako argi guztiek LED teknologia erabil dezaten.

— Argi sare berriaren barruan, poliuretano aparra erabili behar da hoditeria kutxatiletan buxatzeko, eta gidariak izan behar dira eroanbide guztietan.

— Argiztapen koadro berriak Cirprotec VCheck 4RC gaintentsioen kontrako gailu bat edo gailu baliokide bat izan behar du, eta diferentzialek berrarmagarriak izan behar dute.

— Telekomunikazio operadoreen hodi guztiak sartzeko adina tutu jarri eta zanga beretik joango dira hodiak, baina operadore bakoitzak bere kutxatila eta harguneak izango ditu.

— Urbanizazioaren barruan, parterre eta lorategietarako ur harguneak sortzea aurreikusten du proiektuak. Bada, horren osagarri, ureztapen sare automatiko baterako eroanbide eta kableak eta dagozkion aginte koadro eta elektrobalbulak instalatu behar dira, baita ihinztagailuak edo tantakako ureztapen sistemak ere, zer landatzea aurreikusten den.

*4. Hirigintza.*

— Ingurunea eta zuhaitzak lehengoratzeko plan bat aurkeztu beharko da, jarduketa integratuak landatzera behartzen duen zuhaitz berrien (149 zuhaitzen) landaketa zehazteko, Udalsarea21 sarearen 20b koadernoa (Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua. Zuhaixkak eta zuhaitzak) kontuan izanik zuhaitzen gaineko estandarra betetzen duten berdeguneetan. Alde horretatik, eremuan bertan edo beste nonbait landatu ahalko dira zuhaitzak.

— A eta B lursail eraikigarrien oinplanoko zehaztapena aurreproiektuko hatza izango da.

— Rataplan kaleko 5. zenbakiko eraikinetik desbideratzen den kolektore berrirako beharrezkoa den lur zerrenda pribatua da, eta, nahiz eta Txingudi Zerbitzuak SAren eskumena den hura trazatzea, egitea eta hartzea, berriro aztertu behar da kolektorea jabetza pribatu batetik desbideratzea, lurzoru publikotik joan dadin, edo, bestela, dagozkion lurren jabeekin akordio bat egin izana egiaztatu behar da (bide zorra edo Txingudiko Zerbitzuek egoki deritzotena).

— En los perfiles longitudinales de la red viaria proyectada se deben definir los acuerdos verticales.

*2. Pavimentación.*

— En los rebajes de vados peatonales el bordillo y la contracinta o cuneta deben quedar a la misma cota, sin ningún tipo de desnivel, ni siquiera el del chaflán o zona redondeada de la parte superior del bordillo.

— La franja señalizadora de los pasos peatonales se debe colocar en el sentido longitudinal del paso peatonal.

*3. Servicios.*

— En la nueva red de alumbrado proyectada se debe incluir la renovación de las luminarias del tramo de calle entre avda. Euskal Herria y Alarde en ambos lados de la calzada, para que de esta forma todas las luminarias conectadas a la nueva red sean de tecnología LED.

— En la nueva red de alumbrado las canalizaciones se deben taponar en las arquetas con espuma de poliuretano y todas las conducciones deben disponer de guías.

— El nuevo cuadro de alumbrado debe disponer de un dispositivo de sobretensiones VCheck 4RC de Cirprotec o equivalente y los diferenciales deben ser rearmables.

— Las canalizaciones de los distintos operadores de telecomunicaciones irán por la misma zanja, que disponiendo del número de tubos suficiente para dar cabida a todos, sí tendrá arquetas y acometidas diferenciadas para cada operador.

— Se han previsto en el proyecto la ejecución de las acometidas de agua a los parterres y jardines de la urbanización, pero esta se debe completar con la instalación de conducciones y cableado para una red de riego automática, con su cuadro de mando y sus correspondientes electroválvulas, así como la instalación de aspersores o riego por goteo en función de la plantación a ejecutar en los mismos.

*4. Urbanismo.*

— Se aportará un Plan de Restauración Ambiental y Arbolado en el que se concrete la plantación del nuevo arbolado al que ha quedado obligada la actuación integrada (149 árboles), en el ámbito o en lugar diferente. El mismo tendrá en cuenta el Cuaderno de Trabajo n.º 20b de Udalsarea 21: Manual para el Diseño de Jardines y zonas verdes sostenibles en el diseño de las nuevas plantaciones (arbustos y árboles) en las zonas verdes que cumplimentarán el estándar del arbolado.

— La definición en planta de las parcelas edificables A y B será la huella del Anteproyecto.

— La banda de suelo necesaria para el nuevo colector desviado del edificio sito en c/ Rataplán n.º 5 es de propiedad privada y aún siendo su trazado, ejecución y recepción competencia de Servicios Txingudi S.A, debe reconsiderarse su desvío emplazado propiedad privada con el fin de que transcurra sobre suelo público, o bien, en caso contrario, acreditar un acuerdo (servidumbre de paso o lo que a tal efecto estime oportuno Servicios de Txingudi) con la propiedad del suelo afectado por el desvío del colector.

EK\CV GAO-I-2018-05575